



AGINDUA, SEGURTASUNeko SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA JENDEAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN LEGEA GARATZEKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETUA BIGARREN ALDIZ ALDATZEKO DEKRETU PROIEKTUA PRESTATZEKO PROZEDURA HASTEA

6/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak, (aurrerantzean XOEPL), hau bezalako arauak prestatzeko prozedura antolatzen du eta, horretarako, 12.1. artikuluan ezartzen du horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla prozedurok.

Agindu honetan aipatzen den prozedura antolatzeko, nahitaezkoa da, hasieratik bertatik, araua egitearen egokitasunari buruzko erabaki bat hartzea eta horren beharrari eta bideragarritasunari buruzko hausnarketa bat egitea ere bai.

XOEPLen 13.1. artikulua ezartzen du prozedura hasteko aginduak eduki hauek izango dituela:

LEHENENGOA. - Prozedura hastea eta hasiera hori agintzeko eskumena.

1. Agindu honen xedea da jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duen, otsailaren 5eko, 17/2019 Dekretua bigarren aldiz aldatzeko, Dekretu proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.
2. Prozeduraren hasiera agintzeko eskumenari dagokionez, XOEPLek 12.1 artikulua haxe ezartzen du: *"Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da."*

Hortaz, ondorioa da Segurtasuneko sailburuaren aginduz hasi behar dela proiektua prestatzeko prozedura.

BIGARRENA. - Proiektuaren xedea eta helburua.

Arauaren xedea da jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea erregelamendu bidez garatzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua bigarren aldiz aldatzea, indarrean dagoen araudia hobetzeko eta, aldi berean, Eusko Legebiltzarraren 17/2025 mozioa betetzeko.



Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea garatu zuenak, sarrera-kontroleko langileen gaikuntza arautzen du, lege horren (aurrerantzean, JIJL) 21.4 artikuluko agindua betez: “ *Sarrera kontrolatzeko funtzioa bete ahal izateko, beharrezkoa izango da jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren eskumena duen sailaren habilitazioa eskuratzea, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan*”.

Era berean, legeak hainbat aldiz jotzen du sarbidea zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharren arloko erregelamendu-garapenera. Hala, adierazten du zehaztuko dela zer ikuskizun, jarduera eta establezimenduk izan behar duten, beren izaeragatik, edukieragatik edo herritarren bizikidetzan duten eraginagatik, segurtasun pribatuko zerbitzua (segurtasun pribatuari buruzko legerian ezarritako baldintza eta betekizunekin) eta harrera-zerbitzu espezifikoak, behar bezala identifikatutako eta egiaztatutako langileekin, bezeroen edo erabiltzaileen sarbidea kontrolatzeko.

Lege-bereizketa horrek agerian uzten du segurtasun-zerbitzuen eta onarpen-zerbitzuen arteko bereizketa. Erregelamenduak, bereizketa hori jasota, onarpen-zerbitzuko langileak definitzen ditu, eta haien eginkizunak zerrendatzen ditu: pertsonen sarreraren garapen normala erraztea; antolatzaileak ezarritako edo legezko baldintzak betetzen ez dituztenei sartzen ez uztea; baimendutako edukiera gainditzen ez dela kontrolatzea; segurtasun pribatuko zerbitzuetarako edo polizia-rako sarbidean izaten diren aldaketen berri ematea; dibertsitate funtzionala duten pertsonen sarbidea erraztea; jarduera lokaletik kanpo egiten ez dela ziurtatzea; ate bikoitzeko atari akustikoen funtzionamendua zaintzea; ikuskapenak erraztea, eta abar.

Halaber, onarpen-zerbitzuko langileek eginkizun horiek nola bete behar dituzten arautzen da, eta ezartzen da modu ez-arbitrarioan eta pertsonen eskubide eta askatasunak errespetatuz jardun behar dutela, eta debekatuta dute edari alkoholikoa, drogak eta substantzia toxikoak edo psikotropikoak hartzea, bai eta inolako armarik eramatea ere.

Segurtasun pribatuko langileen eta onarpen-zerbitzuko langileen arteko arau-bereizketa kontuan hartuta, gaikuntza-eta erregistro-sistema diseinatu zen, bai eta Joko eta Ikuskizunen zuzendararen 2022ko abuztuaren 16ko Ebazpenean araututako ikasketa-moduluen edukia ere, 17/2019 Dekretuaren 63.2 artikuluen manuekin bat etorritik: “ *Ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak aldian-aldian gaikuntza-probak antolatuko ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako*

Dekretu hori partzialki aldatu zen uztailaren 23ko 119/2019 Dekretuaren bidez (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duena).

Horretarako, onarpen-zerbitzuko langileei dagokienez, beharrezkotzat jotzen da zehaztea zein establezimendu publikotan, ikuskizunetan eta jolas-jardueratan den nahitaezkoa onarpen-zerbitzuko langileak izatea; azpimarratzea onarpen-zerbitzuetako langileen eginkizunak betetzeko beharrezkoa dela berariazko gaikuntza izatea eta ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako onarpen-zerbitzuko langileen erregistroan inskribatuta egotea; onarpen-zerbitzuko langileen eginkizunak betetzeko gaikuntzaren indarraldia edo baliozkotasuna eta berritzea arautzea; eta onarpen-zerbitzuko langileen funtzioak betetzeko gaikuntza espezifikoak lortu duten pertsonen erregistroan jaso behar den informazioaren edukia handitzea; egungo dekretuaren 65. artikuluan, gaikuntzaren indarraldia amaitzeko eta hura ez berritzeko buruzko atal bat gehitzea, gaikuntza errebokatzeak arrazoi gisa, eta administrazioen artean informazioa partekatzeak betebeharra indartzea.

3

HIRUGARRENA. – Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.38 artikulua eskumen eskusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari ikuskizunen arloan, eta eskumen horren barruan sartzen da, halaber, jolas-jardueren arloa, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 27ko 46/2001 Autoak adierazitakoaren arabera. Era berean, 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, segurtasun publikoaren arloko eskumenak ditu.

Bestalde, abenduaren 16ko 2585/1985 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioak ikuskizunen arloan bere lurraldean ematen zituen zerbitzuak, eta honako hau adierazi zen: *“Ikuskizunei dagozkien eskumenen erabilera, segurtasun publikoari eragiten dion neurrian, azken arlo horretako eskumena Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean mugatzen duten manuetara egokituko da.”*

Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak eskumen hori garatzen du, eta, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua onartu zen, zeinaren bidez erregelamendu bidez garatzen baita Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea.

Dekretu hori partzialki aldatu zen uztailaren 23ko 119/2019 Dekretuaren bidez (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duena).

2024ko ekainaren 23an, lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen. Dekretu horren, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera Segurtasun Sailari dagokio, besteak beste, jokia, apustuak eta ikuskizunak.

Halaber, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 4. artikulua xedatzen duenez, Segurtasuneko sailburuari, Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan ezarritako eskumenak

eta ahalmenak egikaritzea dagokio, bai eta indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkionak ere, lehen aipatutako 318/2024 Dekretuaren arabera sailari dagozkion egiteko eta jardun-arloen esparruan. Horien artean daude jokoak, apustuak eta ikuskizunak, eta, besteak beste, helburu estrategikoak garatzean lortutako gizarte-inpaktua aztertzea eta sailaren jarduera-sektoreen helburuetan beharrezkoak diren aldaketak edo garapenak zehaztea.

LAUGARRENA. - Antolamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Xedapen Orokor bat da, eta bigarrenenez aldatuko du 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea erregelamendu bidez garatzen duena, bai eta dekretuaren aldaketak eragin ditzakeen beheragoko mailako arauak ere.

BOSGARRENA. - Generoaren arabeko eragina.

Izapidetzen ari den arau-proiektuak ez die eragiten herritarren eskubide eta interes legitimoiei, baizik eta, soil-soilik, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legean eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea erregelamendu bidez garatzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan araututako onarpen-zerbitzuko langileei.

Hortaz, ez da Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 20 artikuluan aurreikusten duen generoaren arabeko eraginaren txostena egin behar; izan ere, generoaren arabeko eragina aurretiaz ebaluatzeari buruzko Jarraibideak (Gobernu Kontseiluak onartutakoak) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren eta arau-proiektu honi Jarraibide horietako lehenengoaren bigarren puntuko a) eta d) letretan ezarritako salbuespena aplikatzen zaio: *“Generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez dutenak, dela emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako, dela eragin hori hutsaren hurrengoa delako; horrelakoen artean egongo dira betiere herritarren eskubideetan eta bidezko interesetan inolako eraginik ez duten proiektuak”* eta (d) *“Indarrean dauden*

arauak aldatzea xede dutenak, aldaketa funtsezkoa ez bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez”.

Kasu horretan, generoaren arabeko txostena egin ordez, genero ikuspegitik garrantzirik ez daukala behar bezala justifikatzen duen txosten bat egin behar da, jarraibide horien II. eranskinean aurreikusita bezala, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dagokion egiaztapen-txostena eman beharko du.

Ido horretan, adierazi behar da 17/2019 Dekretuaren lehen aldaketan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 130/2019 Irizpena eman zela, eta irizpen horretan ez zela eragozpenik jarri generoaren arabeko eraginari buruzko txostenaren ordez, genero ikuspegitik garrantzirik ez daukala behar bezala justifikatzen zuen txosten bat egitea. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ustez, ez zen beharrezkoa, generoaren arabeko eragina aurretiaz ebaluatzeko Jarraibideak onartzeko Gobernu Kontseiluaren Erabakian xedatutakoa aplikatuz, indarrean dauden beste arau batzuk aldatzea xede duten proiektuetan generoaren arabeko eraginari buruzko txostena egitea, aldaketa funtsezkoa ez bazen emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez, eta aztertutako kasuan aldaketa ez zen funtsezkoa.

SEIGARRENA. - Aurrekontuan izango duen eragina.

Espedienteari memoria ekonomiko bat erantsiko zaio, eta bertan adieraziko da arauak aurrekontuetan izan dezakeen eragina, urriaren 31ko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluan eta ekainaren 30eko Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen 13. eta 15. artikuluetan ezarritakoa betez.

ZAZPIGARRENA. - Bidezko izapide eta txostenak.

1.- XOEPLen 13.1. e) artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura hasteko aginduan adieraziko dira gaia dela-eta bidezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak. Kontuan hartu behar dira, halaber, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. eta 57. artikuluetan ezarritako prozedura-berezitasunak, Lege hori aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak egindako aldaketen ondoren, Eusko Legebiltzarrera bidaltzeari dagokionez.

Dekretu-proiektuaren testua idazteko, hasiera-agindu honen edukia hartuko da oinarri, eta kontuan hartuko dira lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitzak ere.

Dekretu-proiektua idatzi aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APAPEL) 133. artikuluan eta XOEPLen 11. artikuluan 1. apartatutik 3.era bitartean aurreikusitako aldeztutako kontsulta publikoaren izapidean aurkeztutako proposamenak eta iradokizunak aztertuko dira. Izapide hori 2025eko uztailaren 28tik irailaren 15era egin zen.

2.- Agindu honen bosgarren atalean azaldutakoaren arabera, ez da generoaren arabera eraginari buruzko ebaluazioa-txostenik egingo; eta beraz, behar bezala justifikatu beharko da genero ikuspegitik dekretuaren aldaketak ez duela garrantzirik, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzei buruzkoak diren jarraibideen II. eranskinean aurreikusita dagoen bezala.

3.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo da nahitaez. Memoria horrek, XOEPLen 15. artikuluan 3. apartatuak aipatzen duen edukia, eta hasteko aginduari dagokionez, proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi bildu edo berretsi beharko du. Memoria horrek agindu-proiektuaren azterketa juridikoa ere jasoko du.

4.- Espedientearen barruan, Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak emandako memoria ekonomikoa jaso beharko da.

5- Dokumentu horiek egin ondoren, dekretu-proiektua aldez aurretik onartu beharko du Segurtasuneko sailburuak, agindu baten bidez.

6.- Prozedura hasteko-agindua eta aldez aurreko onarpen-agindua, arau-proiektuarekin batera, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira, arau-proiektuarekin batera, XOEPLen 13.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiaren seigarren apartatuan xedatutakoaren arabera. Erabaki horren bidez,

araugintza-xedapen orokorrak egiteko prozeduraren oinarrizko izapidetze-eredua onartzen da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritz. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

7.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoaren arabera, lege horretan xedatutako publizitateari buruzko agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz jendaurrean jartzeko, dekretu proiektuaren testua Legegunean argitaratuko da. Halaber, espediente osatzen duten memoriak eta txostenak ere argitaratuko dira.

8.- Aldez-aurreko onarpenaren ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da Jaurlearitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluko 1. atalean ezarritakoaren arabera, Lege hori aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak egindako aldaketa kontuan hartuta.

9.- Arau-xedapenak lantzeko indarrean dagoen prozeduraren arabera, XOEPLen 16. artikuluen arabera, bidezkotzat jo daitezke erregelamendu bidez sartu diren edota funtsezkoak ez diren txosten eta Administrazio Orokorreko sailei egindako kontsulta hauek, eta horiek guztiak aldi berean eta epe berean (hilabeteko epea) egingo dira, xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

- a) Generoaren ikuspegitik eragin eza egiaztatzeko txostena, EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundeak egindakoa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20.6 artikuluan ezarritakoa betetzeko (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).
- b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eraginari eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzeari buruzkoa; hala ezartzen dutelako 233/2012 Dekretuak, azaroaren 6koak, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, 2.

artikuluak, eta 389/2024 Dekretuak, azaroaren 26koak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 14.2 artikuluan.

- c) Enpresaren gainera eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren arabera, «1. *Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak, bere zerbitzu juridikoen bidez, ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gainera eraginari buruz*». Txosten hori nahitaezkoa da xedapen orokorrak egiteko prozeduran.

Hortaz, nahitaezko txostena bada ere, nahikoa izango da arau-eraginaren azterketari buruzko memorian txosten hori aipatzea, proiektatutako arauaren xedeak ez baitauka inolako eraginik enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gainean.

10.- XOEPLen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren, informazio publikoaren eta negoziazio kolektiboaren izapideei dagokienez, arau-proiektuak herritarren eskubide eta interes legitimoak eragiten ez badie ere, dekretu-proiektuak onarpen-zerbitzuko langileei baino ez baitie eragiten, egokitze eta beharrezkotzat jotzen da XOEPLen 11. artikuluan jasotako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzea, 17/2019 Dekretuaren aldaketa erabakitzeko inguruabarrak kontuan hartuta, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidearen bidez, testu juridiko arauemailea aldeztu aurretik onartu ondoren, lehendik dagoen testu batean jardungo baita, eta horrek ekarpen zehatzagoak eta gizarteak eskatzen duenarekin bat datozenak egitea ahalbidetuko baitu.

Kasu honetan, ez da negotiazio kolektiborik behar, arau-proiektuak ez baitie lan-baldintzei eragiten, eta funtzio publikoari buruzko legeria ere ez da aplikagarria.

11.- Ez da beharrezkoa beste administrazio batzuei kontsulta egitea (XOEPLen 18. artikulua); izan ere, aldaketak onarpen-zerbitzuko langileen gaikuntzaren indarraldiari, berritzeari, errebokatzeari eta erregistroari baino ez die eragiten, eta alderdi horiek

guztiak ikuskizunen eta jolas-jardueren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzaren eskumen eskusibokoak dira, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea erregelamendu bidez garatzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 63., 64. eta 65. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

12.- XOEPLen 19. artikulua arabera, nahitaezkoak eta funtsezkoak diren txosten eta irizpen hauek eskatu behar dira:

- a) Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluaren txostena, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- b) Ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eman behar duen, arau hauetan ezarritakoaren arabera: XOEPLen 23. artikulua eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testuategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren III. Izenburuko IV kapituluko aurreikuspenekin lotuta eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoarekin lotuta.

Txosten hori 15 eguneko epean egin behar da, Kontrol Ekonomikoko Bulegoan arau-xedapenaren proiektuaren testua eta edukiaren arabera aurkeztu behar den dokumentazio guztia jasotzen direnetik zenbatzen hasita.

- c) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, XOEPLen 25.artikuluan ezarritakoaren arabera eta azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
- 9/2004 Legearen 26. artikulua xedatzen duenez, Batzordearen irizpenak emateko epea haren entzunaldia aurreikusten duen xedapenean adierazitakoa da, eta, halakorik ezean, bi hilabetekoa izango da.

13.- 8/2016 Legeak, ekainaren 2koak, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzekoak, 56. artikuluan apartatu berri bat sartzen du (2. apartatua) eta, horren arabera, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, eta aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten.

14.- Prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, eta, hor aurrekariak eta egindako izapideak zehaztuko dira, XOEPLen 24.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko.

15.- 7/1981 Legeak, ekainaren 30ekoak, Jaurlaritzaren Legeari buruzkoak, 18. artikuluko c) letran ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzari dagokio Dekretu bidez onartzea Eusko Legebiltzarrak emandako legeak garatzeko eta betearazteko Erregelamenduak.

16.- Dekretu-proiektua publizitatzeari eta argitaratzeari dagokienez, XOEPLen 29. artikuluekin bat eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera, erregelamenduzko arauak Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira

Legegunean ere argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezarritakoa betetzeko.

ZORTZIGARRENA. - Idazteko modua.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluekin eta XOEPLen 14.5 artikuluekin bat etorritik, testua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, bertsio linguistikoen lanketan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz araua idazteko prozesu osoan zehar. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretiko onarpen-izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

Halaber, eta XOEPLen 27.3 artikulua ezartzen duena betetzeko, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) ziurtagiri bat

jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

BEDERATZIGARRENA.- Espedientearen instrukzioaz arduratzen den organoa.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza arduratuko da proiektu honen izapidetzearekin, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HAMARGARRENA.- Arauaren egokitasunaren justifikazioa.

Dekretu-proiektu hau ez dago Urteko Araugintza Planean sartuta, baina 17/2019 Dekretuaren I.III.8 eranskinean -«Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak»- jasotako establezimenduekin lotutako inguruneetan gertatu berri diren gertakariak ikusita, establezimendu horietako onarpen-zerbitzuetako langileek parte hartu duten gertakariak, («gaueko aisialdikoak» gisa ezagutzen direnak, nahiz eta kontzeptu hori ez egon jasota erkidego honetako jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren araudian), Legebiltzarreko hainbat jarduketa eragin dituzte.

Jarduketa horietako bat 17/2025 Mozioa izan da, gaueko aisialdiko segurtasunerako 17/2019 Dekretua betetzeari buruzkoa. Mozio horretan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio, besteak beste, «*indarrean den araudia azter dezala, eta, hala badagokio, hura alda dezala, onarpen-zerbitzuetako langileen indarkeriazko portaeren zantzurik bada, berme juridiko osoarekin eta oinarritzko eskubideak errespetatuz*».

Legebiltzarren agindu hori betez, indarrean dagoen araua aztertu da, eta beharrezkotzat jo da onarpen-zerbitzuko langileen araubidean aldaketak egitea, arauaren aplikazioan izandako esperientziak erakutsitako alderdiak zuzentzeko.

Arestian azaldutakoagatik, eta XOEPLen 13.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. - Hasiera ematea Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea erregelamendu bidez garatzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua bigarrenez aldatzeko Dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

BIGARRENA. - Hasiera-agindu hau Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzara bidaltzea, organo horrek instruituko baitu proiektua.

HIRUGARRENA. - Agindu hau Legegunea-Euskal araudiaren atarian argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13.d) artikuluan eta Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

LAUGARRENA. - Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzea, 6/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, 13.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horren bidez, automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

Bingen Zupiria Gorostidi
SEGURTASUNeko SAILBURUA
CONSEJERO DE SEGURIDAD